

BAKEA: NON GAGOZ? NORA GOAZ?

Euskalerrian buruz aspaldiko eundak urteetan diran gora-bera guztien sustraia, barruan beti agertzen dan arazoa, errien eskubideen arlokoa da. Ez da arrazo politiko, ori politika guztiak baiño lenago, aurrerago, dago. Arazo ori bideratzen danean. orduan asiko da politikearen jokoa.

Erri bat gara, iparraldeko euskaldunak eta egoaldekoak eta gure artera berton bizi izateko etorri diranak, erri bat osotzen dogu eta gure inguruan daukaguzan beste erriak aintzat artu bear gaitue. Ori bear-bearreko gauzea da, orri laterri-arteko eskubideen arloan kontuan artu-bearrekoa da.

Aintzat artze ori gaur zertan dago? NON GAGOZ?

Erriak, erri lez, orain arte ez dau izan berba egiteko, bere eritxia agertzeko, aukerarik. Orregaitik, zerbait susmatzeko, alderdi politikuetara begiratzea baiño beste biderik ez daukagu.

Abertzaleak ez diranak, oster, arazoa oso illun dauke. PP'k eta PSOE'k bide ori ez dabe ikusi nai, IU/EB be erdibide baten agertzen jaku.

Egoerea orrelan dala, NORA GOAZ?

Urtenbidea ez da erreza, gure erriaren nortasuna ta eskubideak kontuan artzea oso gatxa dalako España'n eta France'n diran alderdietan eta agintaritzan.

Iparraldeko euskaldunak "departamentu" batera sartzea eskatzen da an, eta bide orretatik aurrera doazela dirudi. Ori urrats bat litzake. Ona. Baiña ortik "zazpiak bat" onartzera beste urrats aundiago bat emon bearko litzake. Gero erri alkartu edo batu ori onartzea letorke.

Orrantza goaz euskaldunok eta bide orretatik aurrera egiten ez ba'da, edo ez da lortuko bakerik edo "bake txarra" egingo da. Zauriak odoletan geratuko dira, burrukeak aurrera jarraituko dau, era batera edo bestera.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA**

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

Abertzaleak diran alderdiak argi ikusten dabe ori: EAJ, EA, eta EH bide orretan dagoz, naizta, antza dagoanez, bidea argiago ikusi EAJ'ren barruan Arzalluz'ek eta Egibar'ek, beste era batera berba egiten dabe J.M. Atutxa'k eta Ardantzak, baiña badaukagu itxaropena aurrera egiteko alkartuko dirala.

ETA'k su-etena sendotzat emon arren, urteak joan, urteak etorri, beste burrukalari batzuk agertuko dira.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ